

**2008KO UZTAILAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta zortzi

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak eta erdiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2008ko ekainaren 17ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- OBRAK LIZITATZEA

a.- Hilerrian hilobiak birmoldatzea

Zerbitzu batzordeak proposatuta aho batez erabaki da, hilerrian hilobiak birmoldatzeko obrak prozedura negoziatuaren bitartez kontratatzea. Lizitazioa prezioa 166.295,63 €koa izango da eta egikaritze epea bi hilabetekoa. Behin betiko fidantza %5ekoa izango da eta erantzukizun zibileko poliza, berriz 300.000 €koa.

b.- Udaltzaingorako aldagelak

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez erabaki da, Zubimuzu plazan udaltzaingorako aldagelak egokitzeko obrak prozedura negoziatuaren bitartez kontratatzea. Lizitazioa prezioa 182.508,40 €koa izango da eta egikaritze epea hiru hilabetekoa. Behin betiko fidantza %5ekoa izango da eta erantzukizun zibileko poliza, berriz 300.000 €koa.

c.- 8. Sektoreko hegoaldeko lursailari buruzko urbanizazio obrak kontratatzea.

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** 8. Sektoreko urbanizazio obrak (hegoaldeko lursaila) prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko baldintza plegua onartzea..

Bigarren.- Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea.

1.- Xedea: 8. Sektoreko urbanizazio obrak (hegoaldeko lursaila) kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.

3.- Licitazio prezioa: 388.954,86 €, BEZ kanpo.

4.- Enpresa sailkapena: A taldea, 2. Azpitaldea, c maila.
E taldea, 1. Azpitaldea, c maila
G taldea, 4. Azpitaldea, c maila
I taldea, 1. Azpitaldea, c maila

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

7.- Egikaritze epea: 15 hilabete.

8.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, 13:00etan plikak aurkezteko epea bukatuta biharamunean. Larunbata edo jaia tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek Baldintza Administrazioen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

3.- OBRAK ESLEITZEA. Mendeurren Etorbidean zoladura eta azpiegitura birmoldatzeko obrak esleitzea.

Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

Gobernu Batzordeak 2008ko ekainaren 17an,” **Mendeurren etorbidearen zoladura eta azpiegiturak hobetzeko**” publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lizitazioan parte hartzeko enpresa batzuei gonbidapena luzatu zitzaion. Enpresa horiek aurkeztutako eskaintzak ondorengoak izan ziren:

Enpresak	Prezioa	Epea
CONSTRUCCIONES URBICOLAN, S.L.	84.018,74 bezik gabe	Hilabete eta erdi
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	121.006,71 bezik gabe	Hiru hilabete
CONSTRUCCIONES ORIAKO, S.L.	101.969,12 bezik gabe	Hiru hilabete
CONSTRUCCIONES ERGA, S.L.	99.892,00 bezik gabe	BI hilabete

KOLDO KEREJETA, S.L	120.512,55 bez barne	Bi hilabete eta erdi
CONSTRUCCIONES ESNAL, S.L.	92.598,06 bezik gabe	Bi hilabete eta erdi
TOLOSA ERAIKUNTZAK S.L.	Ez du aurkeztu	
CONSTRUCCIONES FRESNEDA	95.842,91 bezik gabe	Bi hilabete eta aste bete
CONSTRUCCIONES MULARRI, S.L	106.893,51 bezik gabe	Hiru hilabete

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, Kontratazio-Mahaiak kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. CONSTRUCCIONES URBYCOLAN, S.L.ri Mendeurren etorbidearen zoladura eta azpiegiturak hobetzeko obrak esleitzea, LAUROGEITA LAU MILA HEMEZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMOTan (84.018,74 €). Egikaritze epea, hilabete eta erdikoa izangoda.

Bigarren. Adjudikazioak behin-behineko izaera du eta adjudikaziodunak 4.200,94 €ko behin betiko fidantza aurkezten duenean behin betiko esleipena egingo da. Behin betiko fidantza, behi-behineko esleipena kontratugilearen profileen argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

4.- JAKINAREN GAINEAN JARTZEKO OBRAK. Jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko espedienteen artxiboa.

Hirigintza batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko espedientea, sinplea eta hirigintza-ordenamenduan eragin txikia duena, obra txikien lizentziari eta jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko udal ordenantzaren babesean sortu zen eta dokumentu hauek osatzen dute:

- 1.- Aurrekontua.
- 2.- Eskaera – baimena / likidazioa.
- 3.- Sarrera ordainagiria.

Espediente kudeaketa aplikazioaren bitartez izapidetzen da eta paperean artxibatzen da, baina hain sinplea izanik ikusi da bidezkoa izan litekeela bakarrik informatikoki artxibatzea.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, lizentzia eta hirigintza diziplina arloan eskuduntza duenak, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Jakinaren gainean jartzeko obrei buruzko espedientea bakarrik informatikoki artxibatzea, paperean artxibatu gabe.

Bigarren. Erabaki honen berri informatika zerbitzuari ematea, zentzu horretan beharrezkoak diren neurriak hartu ditzan eta ekonomia eta hirigintza arloei espedientea osatzen duten dokumentuak ikusi eta inprimatzeko behar diren baimenak eman ditzan, aipatutako arloek, kasua bada, aurkezten diren eskaera eta erreklamazioei erantzuna emateko, hauen edukiaren arabera. “

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderan atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran goizeko hamaikak eta erdian amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta idatzi eta sinatu dut.